

Abisalia





Asier Serrano (Eibar, 1975). 1997an *Bada hiri gorri bat* argitaratu zuenetik, hainbat poema liburu argitaratu ditu: *Picassoren zaldia*, *Hiri gorritik* eta *Desterratu*en *piztiarioa*. 2001ean *Hoteleko kontuak* narrazio bilduma eta *Mari Basajaunaren eremuan* haurrentzako liburua argitaratu zituen. Horrez gain, bi eleberri argitaratu ditu: *Eskuetan mapak* eta *Erlojugilea*. Literaturaz gain, musika munduan ere hainbat lan egindakoa da: Lorelei taldeko abeslaria eta letragilea da eta bakarka hainbat disko atera ditu, hala nola, *Ez esan inori*, *Hoteleko kantuak* eta *Gerrari bai*.

Asier Serrano

Abisalia



Azaleko irudia Santiago Ramon y Cajalek
marraztutako neurona baten lehen irudien
interpretazio libre bat da

TXALAPARTAREN LEHEN EDIZIOA
Tafalla, 2014ko otsaila

© Txalapartak EDIZIO HONENA
© Asier Serranok OBRARENA

EDITORIAL TXALAPARTA E.M.L.
San Isidro, 35-1A
78. Posta kutxa
31300 Tafalla NAFARROA
Tel. 948 70 39 34
Fax 948 70 40 72
txalaparta@txalaparta.com
www.txalaparta.com

AZALA ETA BILDUMAREN DISEINUA
Esteban Montorio

MAKETAZIOA
Monti

INPRIMAKETA
Grafo
Cervantes Etorbidea, 51,
48970 Basauri, BIZKAIA

ISBN
978-84-15313-78-6
LEGE GORDAILUA
NA. 155-2014



BISITARIA I

ERLOJU ZAHAR HONEN ESFERARI BEGIRATZEN DIOT, eta ez dezaket asmatu noiz lurreratuko den bidaiari bakarra daraman hegazkin hau. Gustatuko litzaidake nire osaba hemen egotea, alboko eserleku hutsa okupatzan. Akaso, harekin hobeto ulertu ahal izango nuen Abisalian igarotako denbora.

Baina ez nuen inoiz osaba ezagutu. Etxean apenas aipatzen zen haren izena. Oso gazte abandonatu zuen amonaren etxea, Francoren erregimenetik ihesi; eta diktadorea hiltzean ere ez zen itzuli. Badakit artikulua ezizenez sinatzen zituela garaiko fanzine debekatuetan. Badakit haren ezizenak izen eta abizenak jaso zituelako egin behar izan zuela alde. Badakit abizen eta izen faltsuak hartu behar izan zituela munduko txoko ezkutuetan atsedean hartzeko. Eta gaurdanik, badakit ez dela soilik abizen bat gure bizitzak lotzen dituena. Abizen batek eta munduko txoko ezkutu batek lotzen ditu geure bizitzak: Abisalia.

XXI. MENDEKO ABISALIA:
IGANDE GOIZA

UNIBERTSO BERRIA ERNALDUKO DUGU izara azpian, Abisalia izenekoa, adibidez. Airea astunago igaroko da gure eztarrietatik eta izerdi lodiaren beroa dastatuko dugu, baina ez gara itoko.

Unibertso berria ernalduko dugu izara azpian, Abisalia izenekoa, adibidez. Zerua ez da horren zabal izango eta hatzekin laztandu ahalko dugu haren azala, baina ez gaitu zanpatuko.

Unibertso berria ernalduko dugu izara azpian, Abisalia izenekoa, adibidez. Izarrak ez dira argitasunera makurtuko eta haiei eginiko promesak ez dira gauzatuko, baina eskura izango ditugu.

Unibertso berria ernalduko dugu izara azpian, Abisalia izenekoa, adibidez. Denborak bere orratzak zorroztu eta aingeru eroren batek gure kontra zuzenduko ditu, baina ez gaitu zaurituko.

Unibertso berria ernalduko dugu izara azpian, Abisalia izenekoa, adibidez. Lurrikara etengabeak sortuko ditugu eta besarkadek aldiro eskatuko dute

atseden, baina ez gara osatzen dugun penintsulatik bereiziko.

Unibertso berria ernaltzen jarraituko dugu izara azpian, harik eta haragiaren mintzo aspertuak gogora ekarriko digun arte, unibertso zaharraren muga ezagunak birkonkistatzeko, igandeko mezarako alkandorra nahita utzi genuela botata ohe azpian.

«GURE AMAK SEKRETU BAT GORDETZEN DU», esan zenidan elkarrekin igaro genuen azken egun hartako goiz eguzkitsuan. Igandetako mezara bidean gindoazen, eta zuk esan zenidan: «Gure amak sekretu bat gordetzen duela uste dut; mahats aleak hatzekin banaka lehertzen harrapatu dut izara garbiak baratze ondoan zintzilikatu ostean... gauza oso arraroak egiten ditu anaia zaharrena frontera deitu zutenetik». Eta gaur, elkar ikusi gabe horrenbeste urte iragan badira ere, hiria zeharkatzen duen marmolezko laugarren zubia ibaian gora arraunean ezagutu zaitudanean, orduko zure hitzak ederto gogoratu ditut. Ez nizun ezer erantzun.

Elizako korridoreko ilaran geundela, apaizak banatuko zizkigun ostia papur beltzak ahoratu aurretik belarrira xuxurlatu nizun: «Joango al gara gero burdindegiko haur atzeratua harrikatzera? Gaur igandea da». Eta gaur ere igandea da hirian; eta izara horizatuekin egindakoa dirudien soinekoz jantzita ikusten zaitut

ibaian gora arraunean; eta soa, istant labur batean, hiriaren marmolezko laugarren zubira gidatuko baze-
nu ere, ez ninduzun dagoeneko ezagutuko. Urte gehie-
gi pasatu dira urrundu gintuen igande hartatik.

Harrikatu genuen burdindegiko haur atzeratua, eta harrikatu genuen gure gorputz biluziak desku-
britu zituen erreka. «Baietz sei jauzi baino gehiago
egin harri honekin?», egin nizun nik apustu. «Zazpi
jauzi egiten badituzu, lastategira eramango zaitut»,
erantzun zenidan zuk. Eta harriak bost jauzi egin
bazituen ere, lastategira eraman ninduzun eskutik
helduta. Eta ibaian gora arraunean zoazela, arraunei
heltzen dieten zure esku horiek mahats lehertuen
kolorea dutela ohartu naiz.

Zalditegitik eskuko eskaileretan gora igo zinen
lastategira nire aurretik. Eguerdiko eguzkiak teilatu-
ko zirrikitu batetik zure izter zuriak urreztatu zituen.
Eta lasto fardel artean larrua jotzen genuen bitartean,
gure azpiko zutoinean, zure anaia zaharrenaren
zaldi gorriaren uhalarekin, zuen amak bere burua
zintzilikatu zuen lepotik.

Zorionez, frontera bidali ninduten astelehen horre-
tan bertan. Zorionez, baserria utzi zenuen astelehen
horretan bertan. Zorionez, ez zu ez ni, ez ginen gure
gorputz biluziak deskubritu zituen erre kara inoiz
itzuli.

Hiri gorriaren marmolezko laugarren zubi hau
aukeratzen dute maiteminduek suizidatzeko. Baina
gaur igandea da; eta bosgarren zubira ailegatzen ari
den mahats ale lehertu bat baino ez zara ibaian gora
arraunean.

PATUARI APUSTU

Halabeharraren mosaikoa suntsitu
eta tesela bakarra salbatu zenuen,
inoiz itsasoratuko ez den ibaian
hondoratu aitzin
zenbat jauzi emango zituen apustu egiteko.

MAHASTIAK ZEHARKATU GENITUEN. Hegabera galdu bat begiztatu genuen zeruan eta hegaberak bi soineko zuri begiztatu zituen airean. Galbideari segitu zion. Ez zituen inork soinekoak habitatzen.

Mahats hostoen geriza morean etzan ginen. Mahats mulkoak lehertu genituen azal gurietan. Ardoa haginka edan genuen. Lehen eta azken mozkorra izan zen hura.

Mahats ale heldugabe erraldoia zirudien ilargiak hotz iratzarri gintuen desira nerabearen lozorrotik. Zure eskua hartu nuen nirean urtaroz nahastu ote ginen jakiteko. Mila zauritan eroritako hegabera begitandu zitzaidan esku ahurretan irristatu zitzai-gun gorria. Mahatsa biltzera heldutako ijitoek igitaitxoak zorrozten zituzten galsoro soildu berri ez hain urrunetan. Kilkerren sehaska kanta mututu egin zen. Uztaro arraro hartako atean geundela jakin genuen.

BISITARIA II

OROITZEN NAIZ IZEN HORI entzun nuen lehenengo aldiaz: Abisalia. Telebistako pailazoen jertsea zein koloretakoa izatea gustatuko litzaidakeen ariko nintzen pentsatzen ziurrenik, amak osabaren azken telegrama jaso eta gure aurrean ahots goran leitu zuenean: «Bizirik nago STOP abisalian STOP gobernadorearen biografo STOP euri gorria ari du hirian STOP gora penintsulak STOP». Ama sofan eseri zen, eta ziurrenik, neba gobernadorearen biografo izatera nola iritsi ote zen hasiko zen pentsatzen (batez ere, diktadore baten atzaparretatik ihes egin zuelako urteak atzera). Amonak, negar egin zuen, hori ziur dakit. Eta nik, telebistako pailazoen jertsea gorria izatea gustatuko litzaidakeela pentsatuko nuen ziurrenik.

AMESGAIZTO BUSTI BATEK IRATZARRI DU arratsaldeko abarotik Dalio jauna, Kram auzoko urretxindorra. Odola uste zuena izerdia da, ordea. Lepoko zain puztuetara eraman ditu esku dardartiak. Mundu oniriko-tik jaurtiki du oroitzen duen azken intziria, eta ezta-rriko kordak afinaturik dituela ziurtatu du ahosabaia mingain puntaz ukituz. «Koddel... Rialdo Koddel», ahoskatu du. Bere-bereak dituen goitzen artistikoa eta izen-abizenak ahoskatu ditu gero: «Luzio Dalio Tango... Krameko aingeru kantaria».

Estatu guztian egin duen kantu biraren azken bi emanaldietarako, gurasoen etxean hartu du ostatu Dalio jaunak. Hobe hotel batean balego baina. Haur-tzaroko bere logelan deseroso dago. Arrotz. Amne-siak jotako emagalduek zakil berria ahoratzen due-nean bezain arrotz. Harrizko zapore lehor hori.

Logela zirkularrak bere ertzak berreskuratu ditue-nean altxatu da dutxara. «Rialdo Koddel», diote kanilatik datozen estreinako tanta hotzek. Eta segi-

dako tanta beroek sortu lurrunean, Dalio jaunaren begietara irudi bat ausartu zaio sartzen. Bart gaueko funtzioan, eszenatoki gainean zela, laugarren ilarako jendartetik fokuek ekarri zioten irudi distortsionatu berbera: Koddel.

Hogei urte atzera... Kram auzoko lizeoko aldage-lak... zilarrezko eratzun baten hotza Luzio gaztearen uzki-zuloan... zilarra mila zatitan urratuko lukeen oihua... lehen oihua.

Oihu hark eraman zuen kantura Dalio jauna hamabi urteko nerabea besterik ez zenean. Barrene-tik sortzen zitzaion oihu berezi horren minak eraman zuen Kram auzotik urruti. Kondena eta salbazioa. Nolabait esateko –eta nolabait ezin da esan–, bere ofizioaren arrakasta zor zion Rialdo Koddel maisuari.

Amak antzezpenerako txukun lisatutako arropak aurkitu ditu egongelako besaulkian Dalio jaunak. Aitak espresuki prestatu dion arrautza zuringoz, eztiz eta belar-pattar garestiz osatutako edabearen edalon-tzia goratu du mahaitxotik ezpainetara. Barrabil eta ipurmasail soilduak biltzen dizkion toalla lurrean amildu da. Lihozko alkandora zuria, galtza estu bel-tzak, belaunetarainoko bota altuak, belusezko jaka, ileorde horixka eta txapel morea jantzi ditu. Arnasa larrituko dion gerrikoa estutu du azken zuloxoraino. Eta, gerrikoak ezkerrean zintzilik daraman narruz-ko zorro luzexkan, aizto zorrotzaren distira ezkutatu duenean iritsi zaio berriro ere izen hori. Rialdo.

Kram auzoko urretxindorrek betaurreko beltze-kin eta gabardina zabalarekin mozorrotuta egin ditu gurasoen etxetik Kram antzokirako hogei metro

eskasak. Aldagelan bakarrik egon gura ez duela, hiruzpalau lagunen konpainia gura duela, eta horrela agindu dio managerrari: «Egon daitezela geldi eta isilik... berdin zait nor diren: atrezzokoak, jostunak, makillatzaileak... hari laukotea, tronboi-joleak edo tinbal-joleak... baina egon daitezela nirekin funtzioa hasi arte, egon daitezela geldi eta isilik nirekin funtzioa hasi arte». Nolabait esateko –eta nolabait ezin da esan–, esan dezadan, estatu mailako biraren azken emanaldiko urduritasunak direla pentsatu duela managerrak.

Orkestraren lehen notekin, tolestu da alboetara zentroan zilarrezko K hizki erraldoi batez apaindurik dagoen teloi berdea. Fokuek eszenatoki atzeko oihal margotua argiztatu dute: oreinkumerik inondik azaltzen ez den baso itxia. Kram auzoko urretxin-dorra taularen erdian. Biluzik. Eskuan daraman aizto zorrotza jendartearen nora ezera gidatu eta orkestra isildu egin da. Hari laukotea, tronboi-joleak eta tinbal-joleak isildu egin dira. Gobernadorearen palkoa isildu egin da. Dalio jaunaren txanda da: «Rialdo Koddell, berriro ere nire etxean sartzen, nire logelan sartzen, nire ohean sartzen eta nire amets batean sartzen bazara, egon zaitez ziur aiztoa prest izango dudala zintzurra mozteko».

Eta gero, Luzio Dalio Tangok, Krameko aingeru kantariak, oihu egin du.

AMODIO MENDEKUA

Lore bat daukat
zortzi petaloz kargatua
eta errekamaran zure lehen hazia.
Bete gabeko promesa guztiak zenbatzean
nire kontra zuzenduko dudan
arma bat daukat.

MAITALEAK ISPILU AURREAN I

FORMAK BERE HORRETAN ISLATZEKO, talentu handirik gabeko jainko besamotz batek sortu zintuela esan zenidan, biluzteko eskatu nizunean. Egia zenioen.

Erantzun nizun jainko horrek emakumezkoa behar zuela izan, eta inbidiaz itsu zizelkatu zintuela horrenbeste itzalgune eta tumorerekin, horrenbeste zauri eta amildegirekin. Gezurra nioen.

Nik ere, begiak itxita zabaldu nuen gauaren gurin mingotsa zure sabel puztu urdinduan.

XXI. MENDEKO ABISALIA:
PROTOKOLOA

AZKEN UHOLDEAREKIN DESAGERTU ZIREN hurrek ez zuten izan denborarik kotoi birjinaz egindako hartza-txoak bataiatzeko. Denborarik ez zuten izan *denbora* hitza bera deszifratzeko. Uralitazko teilatuekin eta aitaren autoaren ate herdoilduekin batera eraman zituen uraren ejertzitoak. Aitonek aspaldiko urtaroak ekarri zituzten memoriara, tradiziozko matematika ilogikoa errepasatuz gertatutakoari esplikazioa topatu nahian. Amonek ez zuten negarrik egin, isuri beharreko dolu malkoek ez zezaten ibaiaren maila jada gehiegizkoa are gehiago goratu. Amek azkar erantzi eta haizatu zituzten beren soinekoak eliza okertuaren kanpandorreen, ibai handiak eramandako haur haiek izan zezaten banderarik urrunetik bistaratzeko. Eta aitek autoko giltza kamutsekin urratu zituzten hatz markak. Ez zitekeen beste ezer egin, huraxe zen eraman beharreko protokoloa.

Azken uholdearekin desagertu ziren haurrak, zerura begiratzen ikasi gabe. Eta norbaitek, Abisalia,

gela urdin batean kabitzen zen ozeano debekatu bat
bihur zitekeela aipatu zuen.

HERIOTZA ZIGORRA

MAITASUNA JOTZEN ETA LARRUA EGITEN ZEN Abisaliako erresuman, lekuko izatea gura ez zuten atso zelatariek ekialdetik estraperloan ekarritako abanikoekin estaltzen zituzten betzulo hanpatuak. Damu lotsa finez ez, baina gaitzidura larriz makillatu zituzten betileak epailearen aurreko aitortzan. Aitarenka eteten zuten ikusitakoaren kronika, eta areto nagusiko takigrafo koitaduak sistema laburtu bat asmatu behar izan zuen atsoen hasperen jarraituak aktan jasota geratzitezen. Bi epaituen abokatuari pornografi a amateur arina begitandu zitzaion zelatarien adierazpena, eta betaurrekoen alanbrea miazkatzera mugatu zuen galderetarako zeukan tartea. Fiskalak, lekukoaren artean kafeinazko pilulak eta paperezko zapiak banatzeari utzi eta harro bota zuen eskaria: «Heriotza zigorra».

Epaileak bere hautua jakinarazi bitartean, bi kondenatuek astia izan zuten, ezpain keinu iheslari batekin, musu hark heriotza zigorra baino sententzia larriagoa ere merezi zuela elkarri adierazteko.

EZ GENUEN OSABAREN BERRI sekula gehiago izan; baina niretzat Abisalia etxeko bazter guztiak okupatu zituen erresuma ikusezin bihurtu zen. Amonak oparitutako munduko mapan ere ikusezin. Haurtzaria dena, eta nerabezaro dena, osabaren mamu hura eta Abisalia izeneko mamu-toki hura elikatzen igaroen. Nire ikastolako ipuin eta marrazkiek ezleku arrotz batean aurkitzen zuten babeslekua. Institutuko Historiako klaseetan osaba imajinatzen nuen Alejandro Handiari lehen eiakulazioa noiz, non eta norekin izan zuen galdezka; edo Napoleon Bonaparteri, eskua beti kasakan ezkutuan eramateko, zein ipurtzulotan galdu zuen enperadore eraztuna galdezka; edo Stalini, zen baino garaiagoa agertzeko, zapatentakoioak nork diseinatzen zizkion galdezka.

Mamuak, ordea, haien eskura jartzen ditugun pentsamenduekin elikatzen dira, eta bazkarik ematen ez diegunean, gosez hil baino lehen, badakite ikusezintasunetik ateratzen. Gertatu zen unibertsi-

tatera joateko sasoi heldu zitzaidala; eta gero gidoigile lanetan hasi nintzela hainbat telebista ekoizterentzat; eta gidoigile eta errealizadore beharrak irudimena betetzen zidala inongo erresuma fantastikotara joan beharrik izan gabe. Eta gertatu zen hogeita batgarren mendean sartu ginela, eta Abisalia irudimenezko hura ere, hogeita batgarren mendeko edozein herrialderen pareko begitandu zitzaidala. Eta gertatu zen, batez ere, mundutar batekin maitemindu nintzela. Eta gertatu zen ni ere mundutar bihurtu nintzen denbora hartan guztian, ez niola amonak oparitutako munduko mapari hautsik astindu, ozeano debekatuan pikor bat atera zitzaiola oharatzeko. Esan dizuet: mamuek, gosez hil baino lehen, badakite ikusezintasunik ateratzen.

LEHEN GAUERDIA ZEN Emilard doktoreak hoteleko gela ordaindu gabe eta abiada beltzean alde egin zuela. Behintzat, zuzenean ordaindu barik egin zuen ihes. Hamahirugarren gelan bularretako hutsean ohean etzanda utzi zuen emakume gazteak ordain zezala azken zerbitzu hura. Ez zen gehiago hotel hartara bueltatuko. Emilard doktoreak aurpegira bota zion billete sorta harekin emakume gazteak bazuen nahikoa beste hiru egunetarako egonaldia ordaintzeko; baita zetazko hiru soineko turkesa eta lau zapata pare takoidun erosteko ere. Emilard doktorea lotsarazi eta sumindu zuen emakume gaztea arduratu zedila logelako anabasa hura hoteleko zuzendariari esplikatzeaz. Berari bost axola. Ezingo zuen bera inork identifi katu. Ez zituen berriro nortasun agiri faltsuko izen-deiturak erabiliko. Emilard doktorea izatera itzuliko zen: oftalmologo agurgarria, etxean emazte gaixoa artatzen zuen senar eredugarria.

Hoteletik bi kale behera aparkatuta zeukan autoa arrankatu, eta motorraren hotsak emakume gaztearen barre burlatia ekarri zion gogora: «Aitatxito, zure adinean horrelako zerrikeriak egiteko eskatzea ere...» eta barreak, «agure lizun usteldua baino ez zara, aitatxito» eta motorraren hotsa. Emilard doktoreak ezin izan zituen emakume gaztearen irainak gehiago jasan; nahiz eta emakume gazteak arrazoia zerabilen ezpain karminez ia desagertuetan.

Motorraren ozena despistatze aldera Emilard doktoreak autoko irratia isiotu zuen. Luzio Dalio abeslariak hirian eman beharreko azken bi emanaldien ingurukoekin itxi zuen esatariak albistegia. Aria bat jarri zuten ondoren uhinetan dantzan. Kram auzoko urretxindorrek abestutako aria bat. Oftalmologo zaharrari begiak malkoz lanbrotu zitzaizkion.

Hiriaren aldiri garestienez kokatutako txaleteko hesia irekitzeko autotik jaitsi zenean, Emilard doktoreak bigarren solairuko leiho argiztuari erreparatu zion. Han zegoen zurrun giza buru itxurako itzal hura. Efektu optiko hura. Lapurrek txaleta habitatua zegoela sinets zezaten sortutako efektu optiko hura. Oftalmologoari ofi zioak baino gehiago, adinaren eskarmentuak irakatsi zion efektu optiko hura. Emilard doktorearen emaztea txalet barruan bazen ere, ez baitzuen behar argirik.

Txalet barrutik bi buelta eman zizkion ate nagusiko giltzarrapo bakoitzari; eta bigarren solairura igo zen zuzenean, lehen solairuko saloiko armairutik hartu ohi zuen likore kopa erdiraino bete gabe. Emilard doktoreak gau hartan ez zuen gehiago edango.

Hoteletik etxerako bidean zin egin zion bere buruari azken urteetako ohitura haiek betirako saihestuko zituela. Emilard doktorea izatera itzuliko zen: oftalmologo agurgarria, etxean emazte gaixoa artatzen zuen senar eredugarria.

Hesitik argizatua ikusi zuen gelaren barrenean sartu, eta leihoaren kontra zegoen mahaitik, efektu optiko hura sorrarazteko erabiltzen zuen munduaren globoa laztandu zuen, bere burua nonbait kokatzeko asmoz edo. Giza buru itxurako itzal hura. Kanpoko iluntasunak bere aurpegiaren isla itzuli zion leihoan Emilard doktoreari. Alboko logelatik aria baten azken aieneak aditu zituen. Gero, Luzio Dalioaren irrati uhinak mututu egin ziren, eta nota mingots haien ordez pauso hots errariak gailendu ziren bigarren solairu osoan. Emilard doktorearen emazteitsuak ez zuen argirik behar ohetik senarrarengana iristeko.

Emazteak atzetik besarkatu zuen senarra. Bien irudiak islatzen zituen leihoak orain. Emilard doktoreak bazekien emazteak ez ziola gau haren inguruko itaunketarik egingo.

Galdera bakarra egitera ohitua zen: «Nola ikusten gaituzu?». Senarrak emaztearen eskua gidatu zuen bere masailera: «Beti bezain gazte maitea».

Eta Emilard doktoreak, leihoan zekusan irudi hura efektu optiko bat baino gehiago izatea desiratu zuen.

XXI. MENDEKO ABISALIA:
POZA ZER IZAN DAITEKEEN

POZA INOZENTZIA UNE HORI BAINO EZ DA. Erratu zarela ohartu arteko istant absurdoa.

Nik banuen lagun bat noizbait tunel ilun batean galdu zena. Argitasun puntu nanoa ikusi zuen urru-
nean. Puntua handiagoa egiten zen heinean, lagunaren
poza ere nabarmen handitzen zihoan. Harantz jo zuen,
argirantz. Milioika zatitan birrinduta geratu aitzin, zan-
patu zuen tren azkarraren faroa izan zen haren poza.

Nik banuen lagun bat txikitan aitaren ehizatara-
ko eskopeta baratzeko simaurrez kargatzen zuena.
Gerra luzetik itzuli zenean, eskopeta herdoildua
lehertu egin zitzaion aurpegian. Simaurraz belztuko
zituen untxi zuriak imajinatzea izan zen gerra garai-
ko haren poza.

Nik banuen lagun bat ezkontza aldarera gizon
pauzoz igo zena. Emazte hartu berriaren beloia altxa-
tzean, gaztetan bortxatu zuen neskatilaren begiek
erotu zuten laguna. Inoiz iritsi ez zen musu hura
desiratzea izan zen haren poza.

Nik banuen lagun bat hiri gorriko katedraleko organoan nota perfektuaren bila arratsero aritzen zena. Behinola, akitua eta etsita, burua irauli zuen organoaren teklen gainean. Sudurrarekin jo zuen nota debekatua. Kaskezurra txikitu zion hodi gorena-
ren azken ulua aditzea izan zen haren poza.

Esan daiteke, nolabait esatearren, nire lagunek loreak ikusi zituztela Heriotzaren balkoian, eta haren ateko aldaba birritan jo zutela.

ZERGATIEN INTERPRETAZIO BAT

IKATZ-EURIA ARI DU eta trenak itzulerako bidaia bat zirriborratzen du gauaren kartografian. Jada nerabea ez den emakumea behinola osaba deitzera behartu zuten agurea despeditzetik dator.

Azken gerraren obusek ereindako metalezko zuhaitzen itzalak nahiko lituzke identifi katu emakumeak bagoiaren leihatilatik, erraietan hazten doakion zuloa beleen lumekin bederen estali daitekeela sinesteko.

Baina ikatz-auria ari du eta gauak betile sarriak orrazteko zerratu ditu begiak. Emakumeak loari eba-tsitako hatsez lurruntzen du leihatila, hatz erakusle eta salatariz «zergatik» hitza idatzi eta negarrez hasten da.

Ikatz-auria ari du baina, dagoeneko, emakumeak ez ditu eskuak horren zikin igartzen, biharko egun posible batean ilargiaren zakil guria masturbatzeko.

ASTEBURUKO AZKEN BISITARIAK agurtu dituzte barrote artetik tximu beltzak eta tximu zuriak, eta biak ala biak zuhaitz giltzapetuaren adar biluzietatik jaitsi dira lurrera. Poliespanez eta kartoiz egindako haitz baten atzean pilota bat eginda zeuden lanerako buzo urdinak jantzi dituzte, eta, erratz bana hartuta, kakahuete eta platan azalez estalitako kaiola hasi dira astintzen.

Luze gabe, baina, eten egin dute beren egitekoa. Tximu zuriak besapearekin heldu dio erratzaren punta soilduari eta bi zigarro atera ditu buzoko patrikatik. Tximu beltza metxeroarekin gerturatu zaio eta gosaldu ostetik buruan bueltaka zeukan galdera bota dio tximu zuriari:

—Non da orduan arazoa?

—Arazoa da... —bi zigarroak ahokada bakarrarekin piztu ditu tximu zuriak—. Arazoa da deus pentsatzen ez duen jende gehiegi eta gehiegi pentsatzen duen jende lartxo dagoela hiri honetan, eta lartxo pen-

tsatzen duen jende horrek deus pentsatzen ez duen jende horrekin gutxiegi pentsatzen duela. Ulertzen, Adan?

Tximu beltzak hatz iletsuetan hartu du tximu zuriak pasatu dion zigarro isiotua eta zero marratura so gelditu da.

—Begira, Eva, beste papagai gorri batek egin du ihes.

BART IZENDATU NINDUTEN berunezko zaldunen enperadore. Nire zaldi moreak lauhazkan gidatu zituen soldadu leial denak batailarik gordinenak garaitzen diren lurretara. Etsaien garezurak ilargiaren malba koloreko izerdiz bete eta egin genuen topa gudan eroritakoengatik. Gero, karez estali genituen zelai mortuak, beleek ere ikas zezaten gosea zer den... putreek ere, lurreratu ezinik, ikas zezaten hegan egin ez hiltzea zer den. Zaldi herrenak sakrifi katu genituen eta haien odolez gure bihotz ustelak bedeinkatu. Ezpatak zorroan sartu eta despeditu ginen azkenik espero ez gintuztenen logeletara itzultzeko.

Gaur, eguzki bekaizkor batek nire berunezko ejertzitoa urtu eta suzko bala erraldoi bihurtu du. Ez zaitzala nire itzalak engainatu, ohaide maitea, denbora gutxiegi geratzen baitzaizu enperadorearentzako kortesiazko keinuekin goiztiria uxatu nahi baduzu.

BISITARIA IV

AMONA, OHEAREN ETZANETIK beste mundurako atea zeharkatzen ikusi nuen. Haren azken arnasa sako-negian antzeman nuen semea berriz ez ikustearen penarekin zihoala. Gero etena. «Utzi gaitu» laburra esan nion amari eta nire haurtzaroa agortzen ikusi zuten logelako pareten artera erretiratu nintzen, amonaren arimak munduko mapatik nola alde egi-ten zuen ikusteko esperantza inozoa gogoan. Orduan deskubritu nuen Abisalia non egon zitekeen. Amonaren arimaren zantzurik ez nuen topatu; bai, ordea, ozeano debekatuan ageri zen pikor berri hura.

Abisalia izan zitekeena aurkitzeak berriro amil-razi ninduen nerabesaroko ametsetan. Egunak igaro nituen errealitatea inkontzienteki edo kontzienteki saihesten: bikotekidearen hilekoa bezainbeste axola zitzaizkidan telesailetarako gidoi-ien tramak eta iru-dien muntaiak, alegia, piper erdi ere ez. Hasieran ulerkor jaso ziren nire alde bikotekidea eta lanki-deak, amonaren heriotzari egozten baitzioten nire

lurtarrekiko harremanaren absentzia. Baina luze gabe abandonatu ninduen neska lagunak irain eta oihu artean. Uste dut haren ahotik entzun nituen azken hizkiek «sentimendubakoautista» hitza osatzen zutela... bai, hala uste dut. Eta film labur baterako idatzi behar nuen gidoiaren zain denbora gehiegitxo egon zen ekoiztetzeko zuzendariak bulegora deitu ninduen: «Eskertzen da etxearengatik egin duzun lana, baina ez daukazu bihar zertan etorri». Bostekoa eman zidan esku batekin, eta bestearekin gutun-azal bat. Alkoholarekin ospatzeko gaua zetorkidan inondik inora.

XXI. MENDEKO ABISALIA:
AZKEN MUSUA

EGIA DA, EGON BADAUDE. Leku zoragarriak daude lehen musua emateko. Bost aldiz jaio izan denak diotsue. Lehen musua bost aldiz eman duenak diotsue.

Lehen lehen musua norian izan zen, hiri gorriari begira. Ordutik ez du gehiago noriak zirkuluan aurrera egin.

Bigarren lehen musua museoan izan zen, Giocondari begira. Ordutik ez du gehiago Giocondak irribarrerik egin.

Hirugarren lehen musua Ahab kapitainaren itsasargian izan zen, azken baleari begira. Ordutik ez du gehiago baleak ur hondora egin.

Laugarren lehen musua zure gurasoen saloian izan zen, zure katuari begira. Ordutik ez du gehiago katuak marrakarik egin.

Bosgarren lehen musua lubakian izan zen, etsaia-ri begira. Ordutik ez du gehiago etsaiak tirorik egin.

Nik diotsuet, eta egia da, egon badaude leku zoragarriak lehen musua emateko. Baina azken musua

beti izaten da begietara begira, Heriotzak marraz-
tutako larre ikusezinean, beti paraje zuri berdinean.
Nik diotsuet.

KRISTALEZKO BEGIA I

ERLOJUGILEAK PATXADAZ EGINGO DU LO GAURKOAN. Hiru egun eta bi gau eman ditu eskumako kristalezko begiaren xerka; baina azkenean, katedraleko karpandorretik zuri-zuria ez izateagatik eta mezularia ez izateagatik erbesteratu zuten usoaren habian aurkitu du begia, bost arrautzaren erdian. Nolanahi ere, erruki apur bat eman dio begia berreskuratzeko usoa akabatu beharrak, beti eduki baititu gogokoago gobernadoreak askatu zituen uso perfektu haiengandik bereizten diren uso apalago horiek. Egia esan, erlojugileari kosta zaio kristalezko begia habian egon zitekeela sinestea; kasualitate etsi batek eraman du han bilatzera, oraindik ere ez baitaki nola iritsi zen begia ezkaratzeko hodi ugertuetan erdi gordean zegoen habia txikira. Badaki hiru ilargi atzera horditurik etxeratu zela; eta badaki amesgaiztoen itsasoan nabigatu ostean, esnatu eta mesanotxean ez zuela topatu eskumako kristalezko begiaren zantzorik. Hiru egun eta bi gau luzatu zaio bilaketa. Ezkaratze-

ra ez bada, etxetik ateratzera ausartu ez den bilaketa denbora agonikoa. Egun hauetan, erlojugileak ez dio erloju dendako ugazabari deitu beharrera joango ez dela abisu emateko; bere absentismoaren motiboak ez azaltzeagatik baino gehiago, buruan zebilzkiolako begi galduak ekarri zizkion oroitzapenak une orotan intzirika.

Begi galduaren arrastoan eman duen lehen egunean erlojugilea akordatu da jaiotzatiko bere begi originalaz ikusi zituen azken fotogramekin: bera bezalatsu jantzitako bost soldaduren fusilak leku berera gidatuta bere alboan; fusilamendu pelotoiaren bukaeran, beste bi soldaduk indarrez eusten zuten neska erdi biluztu haren etsipen eta gorroto begirada urtua; presidente ohiaren alkandora askatuak agerian uzten zuen arnas mugimendu harrotua; jeneralaren bibote zabala are gehiago zabaltzen su egiteko agindua ematerako unean; euri tanta urdin bat bere fusilaren kanoian lehertzen; eta eskumako masail guztia erre zion bolborazko su gorri-beltza.

Begi galduaren arrastoan eman duen bigarren egunean erlojugilea akordatu da ospitalean zela berriz ikustea amesten zuen fotogramekin: udazkeneko hondartza urrun batean, amaren eskuak kapelu oihaldunari eusten haizeak eraman ez ziezaion; hondar eta itsaso aleak zanpatzen zituen zaldi beltzaren trosta; behinola aita deitu izan zuen zaldunaren bisaia loriatsua; eta eguzki abaildu bat ozeanoaren salda afaltzen.

Begi galduaren arrastoan eman duen hirugarren egunean erlojugilea akordatu da Emilard doktoreak

fabrikatutako kristalezko begi berriarekin ikusiko ez zituen fotogramekin: Abisaliako noizbaiteko bandera askea hiri gorriaren enparantza nagusiaren erdian zintzilik; eta Loreleiren karmin margorik gabeko ezpainak haur bati irri egiten.

Baina erlojugileak patxadaz egingo du lo gaurkoan. Mesanotxearen gainean laga du katedraleko kanpandorretik erbesteratua izan zen usoaren habia. Ohean etzan eta badoa, apurka, begi bakarrarekin begi bakarra aurkitu beharreko neke sentimendu hori. Maite zaitut bat ahoskatzen duen norbaitek erantzuna ez jasotzea bezalakoa den neke sentimendu hori. Gaua zelatatzeko, kristalezko begia aurkitu du erlojugileak; eta oraingoan badaki kristalezko begiaren ondoan dauden bost arrautzek ez daramatela bere begiaren azal berdina.